

IVANKA

Piszifaktoria Ideien Laborategiaren ikuskizun bat



Ivanka

hiru urratsetan

01

Aretorako ikuskizun berritzaile bat da. 50 minutuko iraupena dauka eta ohiko aretoetan edo ezohiko lekuetan emateko moldagarria da.

02

Lan honek Donostiako Poltsiko jaialdiak ematen duen ekoizpenerako beka jaso zuen eta jaialdi horren programazioaren barruan estreinatu zen.

03

Piszifaktoriaren zazpigarren lana da, eta, beste behin, **arte adierazpide desberdinak** erabili ditugu esperientzia borobil bat eskaintzeko.



Oihu etsi bat

Barne-bakarrizketa baten bidez kontatutako istorio bat da hau. Indarkeria matxistak hildako emakume etorkin baten buru barrutik atera eta publikoaren buru barruraino sartuko den bidaia bat. Ivankaren eta Ivankaren moduan eraildako izenik gabeko hainbat eta hainbat emakumeren izena eta izana berreskuratzeko ahalegin bat.

Esperientzia desberdin eta berezi bat

Publikoak Ivankaren pentsamenduak entzuteko aukera izango du, buru baten barrutik beste buru baten barrura zuzenean egindako bidaia intimo eta pertsonal batean. Horretarako, haririk gabeko soinu-sistema bat erabiliko dugu, eta publikoak banakako entzungailuen bidez aditu ahal izango du aurrez aurre daukan pertsonaiaren barne-bakarrizketa.





SINOPSIA

Ivankak, beste pertsona askok eta askok bezala, bere herritik alde egin behar izan du. Ekialde txirotik hanka egin eta mendebalde aberatsera etorri da. Atzean utzi ditu ezin konta ahala miseria. Aurretik ditu, berriz, esku artean lehertuko zaizkion hamaika amets ezinezko.

Fitxa artistikoa

Gorputza eta ahotsa
Irati Agirreazkuenaga

Gidoia eta zuzendaritza
Mikel Ayllon

Musika eta soinu-espazioa
Igor Arzuaga

Karakterizazioa eta jantziak
Irati Agirreazkuenaga

Espazio eszenikoa eta ekoizpena
Piszifaktoria



Behar teknikoak

- Aldagela ispiluarekin
- Soinua: Konpainiak eramaten du (haririk gabeko soinu sistema).
- Argia: Konpainiak eramaten du.
- Espazioa: gutx. 4x4, diafanoa, argi naturalik gabe, elektrizitate hartuneekin.
- Ikusle kopuru mugatua (gehienez 60 lagun)



Piszifaktoria Ideien Laborategia

2015ean Laudion sorturiko esperimentazio taldea da PISZIFAKTORIA. Artearen adierazpide desberdinen arteko mugak ikertzea eta begiratzeko, esateko eta adierazteko modu berriak bilatzea dira laborategiaren helburuak.

Orain arte egindako lan nagusiak:

Takoidun zapata gorria. Antzezlan. Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia, 2017.

Maskararen azpiko karmina. Fikziozko audiodia. Loraldia, 2021.

Daniellal. Websaila eta proiektu transmedia. EITB, 2021.

Noiz utziko dio euria egiteari. Ibilaldi dramatikoa. Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia, 2021.

Ivanka. Antzezlan. Donostiako Poltsiko Jaialdia, 2022.

Hau ez da gerra bat. Antzezlan. Gasteizko Printzipal Antzokia, 2023.

Asfaltoaren azpian, euria. Ibilaldi dramatikoa. Leioako Umore Azoka, 2023.

Kontratazioa

Piszifaktoria Ideien Laborategia
Mikel Ayllon
piszifaktoria@gmail.com
620605150
piszifaktoria.eus